

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Iruñean egingo da larunbat honetan Nafarroako Irakurketa Kluben VIII. Topaketa

Holandako Herman Koch-ek, "La cena" edo "Casa de verano con piscina" bezalako nobelen egileak, emango dio hasiera jardunaldiari

Osteguna, 2018.eko urriak 18

Larunbat honetan, urriaren 20an, goizeko 9:30etik aurrera, Iruñeko Musika Hiriko Fernando Remacha Auditoriumean egingo da Nafarroako Irakurketa Kluben [VIII. Topaketa](#), eta oraingoan nazioarteko gonbidatu bat izango dugu, Herman Koch holandarra, nazioartean arrakasta handia izan duten nobelen egitea: "La cena", "Casa de verano con piscina" edo "Estimado señor M."; halaber, gure artean izango dira Ignacio Escolar autorea, eldiario.es-en sortzailea eta Joaquim Bosch epailea.

400 bat pertsonak eman dute izena, gehienak ere Nafarroan dauden 175 klubetakoren batekoak. Nahiz eta topaketa horiek duela zortzi urtetik hona Liburutegien Zerbitzuak antolatzen eta sustatzen dituen, gonbidapena egin zaie liburutegi publikoetako irakurketa klubei (gehiengoa) nahiz unibertsitateetako eta institutu etako klubei, elkarteei, egoitzei, liburu-dendei, e.a. Hain zuzen ere, aurten, Nafarroako irakurketako [kluben mapa](#) egin da, eta topaketan aurkeztuko da; bertan, klub guztiak ez ezik, haien espezializazioak ere (nobela beltzaren edo nobela historikoaren komikiak, besteak beste) jaso dira.

Programa

Jardunaldia 10:00etan hasiko da Herman Koch-en hitzaldi edo mahai-inguruarekin, eta publikoak ere aukera izango du harekin hitz egiteko. Atsedenaldiaren edo kafearen ondoren, 12:30ean, Nacho Escolar kazetariak eta Joaquim Bosch epaileak, "El secuestro de la justicia: Virtudes y problemas del sistema judicial español" liburuaren egileak, justiziar buruzko elkarrizketaren protagonistak izango dira.

Topaketa 14:30ean amaituko da jazz kontzertuarekin, Iñaki Rodríguez-en eskutik (Swing Quartet).

Topaketa hauek ibiltariak dira, eta aurreko edizioetan Barañainen, Tuteran, Martzillan, Burlatan edo Tafallan egin dira; gainera, horietan honako hauek bezalako idazleek parte hartu dute: Rosa Montero, Marta Sanz, Dolores Redondo eta Sara Mesa; edo Héctor Abad, Manuel Rivas, Ignacio Martínez de Pisón, Jorge Herralde, Isaac Rosa eta Carlos Zanón.